

**14/2020 TXOSTENA, ABENDUAREN 2KOA, KONTRATAZIO
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE
IRAUNKORRARENA.****XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, LAN ETA ENPLEGU SAILAREN
EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN
DUENA****II.- AURREKARIAK.**

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 6. artikuluan:

«6. artikulua.- Lan eta Enplegu Saila

1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Lan eta Enplegu Sailari:

a) Enplegu-politika, eta enplegurako lanbide-heziketa, dekretu honen 10.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzaz izango du, betiere zerbitzu horren erantzukizunen barruan.

b) Lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena egikaritzea.

c) Gizarte-ekonomia: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak eta ekonomia solidarioa.

d) Enpresen gizarte-erantzukizuna.

e) Gizarte Segurantza, Autonomia Estatutuan aurreikusitako moduan.

f) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema.

g) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.

h) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak.



2.- Sail honi atxikitzen zaizkio "Osalan, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales" eta "Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua" erakunde autonomoak».

Hortaz, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 6. artikulua horretan esleitutako arloei dagozkien egitekoak gauzatu ahal izateko.

2020ko azaroaren 5ean, Dekretu-proiektuari buruzko txostena egiteko eskabidea egin zion Sail horrek Batzarde honi.

Espediente hori Tramitaguneraren —prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren— bidez izapidetu zen, DNCG_DEC_107263/0_03 erreferentziarekin, eta txosten honetarako interesgarriak diren honako agiri hauek jasotzen ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua
- Dekretu-proiektuari buruzko justifikazio-memoria, Saileko Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Memoria ekonomikoa, Zerbitzu zuzendariak sinatua.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. zenbakian ezarritakoari jarraikiz, dekretu-proiektuak kontratazioaren eremuari eragiten baitio, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.



Bestetik, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

III.- KONTRATAZIOAREN ESPARRUAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK:

Ondoren, proiektuan jasotako alderdi guztiak transkribatuko dira:

«6. artikulua.- – Zerbitzu Zuzendaritza.

1.- Zerbitzu Zuzendaritzak honako eskumen hauek izango ditu, dekretu honen 5. artikuluan oro har esleitzen zaizkion egitekoez gainera:

[...]

g) Kontratazioaren arloan aholkuak eta informazioa ematea eta espedienteak eta gorabeherak izapidetzea, bai eta kontratazioaren arloko errekurtsio arruntei eta apartekoei buruz txostenak egitea ere.

[...]

2.- Zerbitzu zuzendaria izango da sailaren kontratazio-organoa.

3.- Zerbitzu zuzendariaren eskumena izango da, halaber, sailaren gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak; kreditu-transferentziak ere izapidetuko ditu.

4.- Zerbitzu zuzendariak eskumena izango du, era berean, entitateekin prestazio jakin batzuk hitzartzeko xedea duten negozio juridikoak sinatzeko. Horretarako, baina, entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera izan behar dute, sektore publikoko kontratazioa erregulatzen duen araudian ezarritakoarekin bat etorritik.

Horrez gain, 14. Artikuluko 1. zenbakiak honako testu hau aipatzen du:



«14. artikulua. – Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaritzak.

1.– Lurralde historiko bakoitzean Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaritza bat egongo da. Lurralde-ordezkaritzako buru lurralde-ordezkaria izango da, zeina, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarekiko mendekotasun organikoa duela, bere lurraldeko lan-arloko agintaria izango baita. Hauek dira lurralde-ordezkararen ahalmenak:

[...]

u) Zerbitzu zuzendariari kontratazio-arloan dagozkion ahalmenak gorabehera, lurralde-ordezkaritzetako titularrek eskumena izango dute beren eremuan beharrezkoak diren funtzionamendu-gastuak onartzeko, indarrean den funts aurreratuen araubidearen barruan betiere.

[...]»

Eta, azkenik, Lehenengo Xedapen Gehigarrian ezarritako ordezkapen-araubideari eta Zerbitzu Zuzendaritzari dagokienez, Dekretu-proiektuan bertan izendatutako kontratazio-organoa den aldetik, Kabinetearen Zuzendaritzako titularrak baliatuko ditu zuzendaritza horren eskumenak titularraren lanpostua hutsik badago edo titularra kanpoan edo gaixorik egonez gero.

Batzorde honek ez dio inolako oztoporik jartzen Dekretu-proiektuan ezarritako kontratazio-organoen araubideari.

Alabaina, beharrezkotzat jotzen da 6. artikuluko 4. zenbakiko nomenklatura Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikulura egokitzea. Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Hala, komeni da «baliabide propio eta zerbitzu tekniko» jarri ordez «baliabide propio pertsonifikatu» jasotzea.



Bestalde, komeni da zera adieraztea, Sailari atxikitako edo lotutako organoak ere aipatzen dituela Dekretuak, jada aipatutakoez gain, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan jasota daudelako, horietako batzuk kontratazio publikoarekin lotuta egonik, klausula sozialen (erosketa publiko estrategikoa) eta obra-kontratuen alderdietan. Zehazki, honako hau:

«2. artikulua.- Lan eta Enplegu Sailaren egitura orokorra.

[...]

3.- Honako organo hauek ere Lan eta Enplegu Sailari atxikita edo lotuta daude, beren sortze-arauek ezartzen dutenaren arabera:

- a) Sindikatu Hauteskunderen Bulego Publikoa eta haren lurralde-bulegoak, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuaren bidez sortuak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarrizketa Sozialaren Mahaia, urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren bidez sortua.
- c) Gizarteratzeko Euskal Kontseilua, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- d) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- e) Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bidez arautua.
- f) Herri Lanetarako Erakunde arteko Batzordea, apirilaren 29ko 74/2008 Dekretuaren bidez sortua.

[...]»

Halaber, hau ere azpimarragarria da: V. Kapitulan, Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari buruzkoan, organo horren eginkizunak aipatzen dira, besteak beste, baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen eta pertsonen gizarteratzea lortzeko erakunde publikoen ekintzak sustatzearekin zerikusia dutenak. Bestalde, 13. artikuluan c) eta g) letretan aipatzen da Sailburuordetza horren barneko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak enplegu- eta prestakuntza-berrikuntzako proiektuak burutuko dituela «zeharka, beste sail, administrazio edo



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardea

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA

Junta Asesora de Contratación Pública

erakundeekin», eta «zailtasunak dituzten kolektiboetarako –besteak beste gazteak, ezintasunak dituzten pertsonak, emakumeak (...)– enplegurako sarbidea» emateko; horrek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak –Lege horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– (zehazki, 122.2, 201 eta 202 artikulua) kontratazio publikoan klausula sozialak txertatzeari buruz adierazitakoarekin lotzen da.

Aipatutako eskumeneren idazketak eta banaketak ere ez dute eragozpenik sortzen; hori bai, erosketa publiko estrategikoa bultzatzearekin zerikusia duten alderdi guztietarako eta arlo soziolaboralari dagokionez, gogorarazi egin behar da 116/2016 Dekretuaren 27.b) artikulua araberak, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzarde honek honako hauek bideratutako neurriak kontratazio publikoan sartzeko mekanismoen proposamenen berri eman behar duela:

«Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukeraberdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta».

Adierazitakoagatik guztiagatik, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretu-proiektuaren **ALDEKO TXOSTENA** ematen da.